

## **MOZIOA, PSE-EE UDAL TALDEARENA, "BAKEAREN USOA" SAGUESA ERAMATEA DELA ETA**

PSE-EE taldearen bozeramaile Ernesto Gasco Gonzalok, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiak ematen dion babes aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten du.

### **JUSTIFIKAZIOA**

"Bakearen usoa" Saguesa behin-behingo, korrika eta presaka eta lardats eramateak erakusten du, beste behin ere, BILDUren gobernua zer izan den: parte-hartzea aipatu aldarrika, eta herriaren gobernutzat jo bere burua, baina edozein gobernu demokratikok —eta oraindik eta gehiago udal bateko gobernuak— izan behar lukeen elkarrizketa, adostasun eta zeharkakotasun jokabiderik batere ez izan gero.

Hala, donostiarren ordezkari goren gehiengoak pentsatzen duenari batere kasurik egin ez eta Donostiaren ikur bat bidegabe, alderdikeriaz eta partzialki erabiltzea erabaki du, ETAK jende gehien hil duen euskal hiriburuko —ez baitugu ahaztu behar hori— ikur bat.

"Bakearen usoa" bezalako ikur baten inguruan hirian diren sentsibilitateen artean adostasuna izateko lanik ez egiteaz gainera, donostiar guztien ia milioi bat euro batere beharrik gabe gastatzea ere bakar eskultura hori Saguesa eramateak, behin-behingo kokapen batera, gainera, eta inguru horrek hirigintza aldetik izan behar duen planteamendurik egin gabe eta erabat bukatu gabe den itsasertzeko pasealekuari bukaera bat eman gabe.

Monpasgo pasabidea egiteko aukera alferrik galduz ekin zion gobernu aldiari BILDUK —hiriarentzako 12 milioi euro galdu zituen hala—, eta inguru horretan beste arazo bat sortuz bukatuko du; izan ere, Uliak bezala, ezeren kasurik eta mimorik ez baitu merezi izan inguru horrek udal Gobernuarentzat.

Hori dela eta, hauxe da nire

### **MOZIOA**

1. Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio hitz emateko korporazioaren gehiengoak adostutako pentsamendua eta hirian diren iritziak bere gain hartuko dituela hirian diren elementu sinbolikoak eta ondarezkoak —"Bakearen usoa", esate baterako— tokiz aldatzearen gainean erabaki funtsezkoak hartu baino lehen.

2. Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio, Saguesen "Bakearen usoa" edo beste edozein eskultura edo ekipamendu jarri aurretik, hartarako egin behar den hirigintza planifikazioa eta antolaketa egiteko, Donostiako itsas pasealekuaren ekialdeari bukaera egoki bat emateko.

*Donostian, 2015eko apirilaren 23an*

Ernesto Gasco,  
PSE-EEren bozeramailea.